# ekipo

2023 UZTAILA | JULIO nº 26 zk.



## 22-23 IKASTURTEA HEZKUNTZA ZERBITZUAN

4. ORRIA

## ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA ETA 2022KO MEMORIAREN ONARPENA

2. ORRIA

## VOLUNTARIADO EN ASPACE GIPUZKOA

6. ORRIA

## ASPACE GIPUZKOAK BAT EGIN DU FEVASEN “NIRE BOTOAK BALIO DU” EKIMENAREKIN

3. ORRIA

## RELEVO EN EL ÓRGANO DE REPRESENTACIÓN DE LAS PERSONAS USUARIAS

10. ORRIA

# ELIKADURA TAILERRA KIMUN

7. ORRIA

# BAZKIDEEN BATZARRAK ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA ETA 2022KO MEMORIA ONARTU DITU



**Rosa Iglesias, Presidenta de Aspace Gipuzkoa**

*“Ilusioz eta konpromisoz beterik gaude, Aspace Gipuzkoa osatzen duten gainerako familiekin batera, garun-paralisia duten pertsonen egunerokotasuna hobetzen jarraitzeko.”*

***Tras muchos años de implicación y pertenencia a la Junta Directiva, accedes al cargo de Presidenta de Aspace Gipuzkoa. ¿Qué destacarías de esta nueva etapa?***

La Junta Directiva ha realizado un relevo generacional durante estos últimos años. Familias jóvenes han cogido el relevo a las que llevaban un tiempo y eso es muy importante para mantener la asociación viva.

La Junta representa a toda la asociación, familias de niños/as y jóvenes de la etapa educativa y familias de personas adultas, así como dos personas con parálisis cerebral que representan al colectivo. También cabe destacar la presencia de hermanos/as, que tienen una visión distinta y complementaria de la de los padres y madres.

Estamos ilusionados y comprometidos para trabajar, junto con el resto de las familias que componen Aspace Gipuzkoa, en mejorar el día a día de las personas con parálisis cerebral.

La Junta Directiva es la representante de la Asociación, pero no es el único órgano de participación, contamos con un órgano de participación propio de las personas adultas y con el Consejo Escolar en el que participan las familias de la etapa educativa junto con profesionales.

Pero es importante fomentar la participación no solo a través de estos órganos formales, sino a través de otros entornos más informales que también sirven para fortalecernos como entidad.

***Has sido parte activa en la organización del 50 aniversario de la Asociación ¿Qué ha supuesto dicha celebración?***

El 50 aniversario nos ha dado la oportunidad de visibilizar nuestro proyecto asociativo en toda Gipuzkoa. Las personas con parálisis cerebral han participado y han sido protagonistas en actividades sociales en distintos municipios de Gipuzkoa, y lo han hecho como un ciudadano más, como ciudadano/a de pleno derecho.

La conmemoración también ha servido para que las familias nos hayamos conocido más, reforzando así nuestro sentido de pertenencia con la Asociación.

Por otra parte, hemos recibido 10 reconocimientos otorgados por agentes sociales y culturales de la sociedad guipuzcoana, así como el Premio Sabino Arana a la labor social, por lo que estamos muy agradecidos.

El lema **“Elkarrekin gai + gara” “Juntos somos +capaces”**, continua vivo y presente porque recoge nuestra forma de trabajar tanto interna como externamente, trabajar en equipo, en red. Cada persona aporta y entre todos y todas lograremos continuar mejorando.

***¿Podríamos avanzar retos a futuro?***

Estamos ante una nueva reflexión estratégica, de forma que a partir de 2024 contaremos ya con una definición más concreta que surgirá desde un trabajo compartido entre familias, profesionales, personas con parálisis cerebral y personas voluntarias, pero sí se puede observar que existen distintos retos a abordar.

Por una parte las personas con parálisis cerebral van cumpliendo años y sus familias también por lo que es necesario adaptar los servicios a las nuevas necesidades. Se observa también que las necesidades de apoyo de las personas que se incorporan a la Asociación son mayores que las de hace unos años.

Por otra parte las familias más jóvenes necesitan de apoyos para poder conciliar su vida familiar y profesional, siendo totalmente necesario avanzar en programas diversos de apoyos a familias.

Los últimos años se habla mucho del enfoque centrado en la persona, y es cierto que se va avanzando en este tema, pero es muy importante también poner el foco en la familia. Una asociación de familias como la nuestra debe de estar también centrada en la familia y este es un reto a llevar a cabo en colaboración con la Instituciones.

**Belén Prado Fernández**

«Me incorporo con mucha ilusión y con ganas de ayudar. Deseo mejorar y organizar las actividades de nuestros hijos e hijas. Aportar a la Junta Directiva y conseguir los objetivos establecidos.»





**ASPACE GIPUZKOA MEMORIA 2022**

**Deskargatu**
**Descárgatela**

Aspace Gipuzkoa

# ASPACE GIPUZKOAK BAT EGIN DU FEVASEN “NIRE BOTOAK BALIO DU” EKIMENAREKIN

Pasa berri diren udal eta foru hauteskundeak direla eta, FEVASek topaketa bat antolatu zuen maiatzaren 5ean, Kursaalean, diputatu nagusi izateko hautagaiekin eta adimen- edo garapen-urritasuna duten pertsonekin, inklusioan eta herritartasun osoan aurrera egiten jarraitzeko.

Topaketak adimen- edo garapen-urritasuna duten pertsonei ikusgarritasuna emateko balio izan zuen, baita eztabaidarako gune bat irekitzeko ere, zuzenean dagozkien gaietan alderdi bakoitzaren lehentasunak bertatik bertara ezagutzeko eta beren eskaerak aurkezteko balio izan zuen.

Topaketa horretan Aspace Gipuzkoako bi pertsonak parte hartu zuten: Arantxa Rodríguez eta Miguel Ángel Garrok.




### ELECCIONES 23 DE JULIO

Plena Inclusión ha presentado un manifiesto de cara a las elecciones del Congreso y Senado del 23 de julio.

***Manifestua deskargatu***
***Descargar manifiesto***

### *Miguel Ángel Gómez*

“El día 5 de mayo, acudimos a un encuentro de FEVAS Plena Inclusión de Euskadi en el Kursaal. Distintas asociaciones de personas con diversidad funcional, teníamos la oportunidad de realizar preguntas a los candidatos/as a diputado/a general.

Cada asociación realizábamos dos preguntas que eran respondidas por un candidato de cada partido político. Con estas preguntas queríamos que se implicasen un poquito con sus respuestas para poder lograr un compromiso por parte de ellos.

El encuentro fue muy ameno, estuvo bien, esperemos que sirva para que sepan de primera mano cuáles son las dificultades y/o necesidades que nos encontramos todos los días las personas con diversidad funcional.”

### *Arantxa Rodríguez*

“La jornada del Kursaal fue una oportunidad para poder trasladar nuestras preocupaciones. Entonces les pregunté por la mejora de la accesibilidad en las ciudades. Ahora les preguntaría por los ratios profesionales en los equipos, ya que cada vez, hay más necesidades de apoyo porque nos vamos haciendo mayores y queremos seguir con nuestro proyecto de vida.

¡Suerte en la Diputación!”



# 22-23 IKASTURTEA HEZKUNTZA ZERBITZUAN

Ikasturte haseran kontatu genizuen bezala, ikasturte honetan aritu gara Aspace Gipuzkoako ikastetxeetan ikastetxe eredurantz pausuak emateko urratsak aztertzen, eta etorkizunerantz begiratzen.

Horretarako lehenik eta behin, gure ikasleriaren perfil bera duten Euskadiko beste bi ikastetxeekin aritu gara koordinatzen: bai Aspace Bizkaia eta bai Gasteizko Gorbeialde ikastetxea.

Ikastetxe bakoitza nola dagoen aztertu, zein behar ditugun ikusi eta eskutik helburu beraren bila nola joan gaitezkeen aztertzeko. Ikasturtean zehar ere, FEVASen eskutik, Hezkuntza Bereziko lau ikastetxeok hainbat bilera izan ditugu Hezkuntza sailarekin Lakuan hurrengo sei urteetako itunketa negoziatzeko, eta lau ikastetxeek ditugun beharrak aurkeztu eta departamentuaren eskutik nola bideratu negoziatzeko.

## 22-23 IKASTURTEA KOPURUETAN

| IKASLEAK 116 | LANGILEAK 189 |
|---|---|
| Goienetxe 45 | Irakasleak |
| Santa Teresa 11 | Begiraleak |
| Irun 5 | Logopedak |
| Andoain 3 | Fisioterapeutak |
| Tolosa 6 | Psikologoa |
| Beasain 14 | Terapeuta |
| Bergara 6 | Erizainak |
| Arrasate 6 | Medikua |
| Eskoriatza 4 | Gizarte langilea |
| Eibar 16 | |




Berritzen ari garen hezkuntza proiektuan, ikaslea erdigunean izanik, berarekin esku-hartzea izango duten profesionalak irudikatu ditugu.

Alde batetik berarekin gelan izango direnak, eta bestetik departamendu desberdinetako profesionalak helburu espezifikoak izango dituztenak.

Une honetan departamendu bakoitza (logopedia, fisioterapeutak, terapeuta okupazionaka eta psikologoak) lanean ari dira beraien helburuak, prozedurak eta koordinazio sistemak definitzen.

Eta guztiak osatzen ditugunean, atal guztien koordinazio eta jarraipen sistema berri batekin hasiko gara.

Hausnarketa honek guztiak eta gure lanaren definizio berriak aldaketa haundiak ekarriko dizkigu, eta hobekuntza nabarmena izango da ikasleentzat, baita familia eta profesionalentzat ere.

# HEZKUNTZA ZERBITZUKO IKASLEEK HAINBAT IRTEERA EGIN DITUZTE 22-23 IKASTURTEAN ZEHAR


















# LAS PERSONAS VOLUNTARIAS APORTAN VALOR A LA ASOCIACIÓN Y FELICIDAD A LAS PERSONAS CON PARÁLISIS CEREBRAL

***Boluntarioak funtsezko laguntza dira, garun-paralisia duten pertsonak gizarteratzen laguntzen baitute, beraien eta euren familien bizi-kalitatea hobetuz. 109 boluntario ditugu, eta gehienak emakumeak dira, batez besteko adin-tartea 30 eta 40 urte bitartekoa delarik. Boluntariotzako jarduerak Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran, Donostian, Eibarren, Errenterian, Irunen, Urretxun eta Zarautzen egiten ari dira.***



### IKER MATO, OPORRETAKO BOLUNTARIOA

“Aspace Gipuzkoarekin udan lan egiteko eta garun-paralisia duten pertsonei buruz gehiago ikasteko harremanetan jarri nintzen eta udan oporrak programan boluntariotza bat egitea eskaini zidaten.

Iruñako egonaldian hainbat jarduera eta irteera egin genituen hiria ezagutzeko; igerilekura, bolatokira, zinemara... joan ginen.

Boluntario gisa, erabiltzaileei behar zuten guztian lagundu nien, jaten, garbitasunean, mugitzen... Oso ondo pasatu genuen eta esperientzia ikaragarria izan zen!

Boluntariotza mota honek, behar bezala egokituta ez dagoen edozein hiritan aurki ditzakegun oztopoez gehiago jabetzea eragin zidan. Jende guztia horrelako esperientzia bat bizitzera animatuko nuke.”

### VOLUNTARIAS DE NAGUSILAN IRÚN

“Nosotras pertenecemos a Nagusilan, pero creemos que todas las personas voluntarias de todas las asociaciones sentimos lo mismo: queremos aportar nuestro granito de arena de forma solidaria y desinteresada a las personas y colectivos que nos necesiten. En concreto Nagusilan trabaja en el acompañamiento contra la soledad no deseada.

Aspace Gipuzkoa se puso en contacto con nuestra asociación para solicitar voluntarias, hace cinco años. Lo que en principio fueron cuatro personas (un grupo) en la actualidad somos dieciséis (cuatro grupos). Así salimos todas las semanas.

¡Decir que nos lo pasamos bien (nosotras), es decir poco! Creemos que nos han aceptado como sus iguales, nos tratan con toda la naturalidad del mundo y más que acompañantes somos amigas y colegas.

Es un camino de ida y vuelta: todo lo que nos dan (mucho, muchísimo), lo volvemos a trasladar a ellos.”



### AROA COLAS, XUME ETXEBIZITZAKO BOLUNTARIA



“Boluntariotzak asko betetzen nau, zoragarria da, bai hango langileek eta bai hor bizi diren haurrek beso zabalekin hartzen naute beti. Ematen didan zoriontasuna hitzez ezingo nuke adierazi, maitasunez betetzen naute, beraien besarkada goxoekin, gertutasunarekin, keinu eta hitzekin. Gauza berri asko ezagutzeko eta ikasteko aukera izaten ari da.

Dudarik gabe, esperientzia polita eta gomendagarria da eta oso gustora joaten naiz. Ni larunbata arratsaldetan joaten naiz eta bertan bi ordu t’erdi igarotzen ditut. Haurrekin auzotik paseatu, erosketak egin, igerilekura joan, herrira ateratzen gara... txarra egiten duenean, ordea, etxean geratzen gara eta dinamika desberdinak egiten ditugu: jolastu, margotu, musika entzun edo supermerkatura joan.

Aspace Gipuzkoa boluntariotza azoka batean ezagutu nuen, atentzioa gehian deitu zidan postua izan zen.”

# ELIKADURA TAILERRA KIMUN
## PROYECTO PARA FAVORECER LAS CAPACIDADES PERSONALES DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD

Kimu etxebizitzan (Donostia) 4 emakume bizi dira, eta asteko menuak modu orekatu, aberats eta elikagarriagoan egiteko interesa azaldu zuten.

Eskaera honi erantzuteko, Ausolanekin harremanetan jarri gara, eta menu osasungarriak egiteko tailer praktikoa antolatu dugu.





**ASIER GARMA,**
**AUSOLANEKO NUTRIZIONISTA**
“Hainbat bilera egin ditugu menua egiten ikasi eta dieta orekatua eta askotarikoa burutzeko elikagai egokienak zein diren jakiteko.

Pisukideek taula batean adierazten dute zer kontsumitzen duten, eta hilaren amaieran ikusiko dugu menua behar bezala eraman den. Aurrerapenak ikusten ari gara, fisikoki hobeto sentitzen direlako.”



**YASMINA TITAH**
“Cada una de nosotras dice qué es lo que le gusta y entre todas, con la ayuda de Joseba y Asier, elegimos el menú final.

Estoy muy contenta porque antes comíamos siempre lo mismo, y ahora tenemos un menú mucho más variado.”



**SARA CARRACELAS**
“Durante el día cada unas tenemos nuestra vida y comemos en diferentes comedores, yo por ejemplo, como trabajo en Gureak, como allí.

Pero la cena la hacemos juntas. Los lunes nos reunimos y hacemos el planning semanal y los martes nos vamos a hacer la compra al supermercado que tenemos aquí al lado. Ahora como alimentos que antes ni probaba, por ejemplo el pisto.”



**OIHANA MANTEROLA**
“Asko gustatzen zait Josebak nola sukaldatzen duen. Nire plater gustukoena patata tortila da, oso goxoa ateratzen zaio.

Afaldu aurretik mahaia ipintzen dut, hori da nire eginbeharra. Egun guztia lanean pasa eta gero, denok batera afaltzea asko gustatzen zait, eta asteburutan ere guk prestatzen dugu janaria!”



**JOSEBA URKOLA, HEZITZAILEA**
“Bi hilabete damazkigu proiektuarekin eta oso emaitza onak ikusten ari gara. Kimun bizitza independientea eramaten dute eta pauso hau emateak asko hobetu du euren bizitza. Nik egunerokotasunean laguntzen dut eta afariak eta asteburuetako askariak prestatzen laguntzen diet. Denon artean talde lan bikaina egiten dugu.”



**ARANTXA RODRÍGUEZ**
“En la vivienda de Kimu muchas de las decisiones que tomamos se hacen desde la participación de todas. Personalmente percibo que desde la reunión con Asier comemos de forma variada y equilibrada.
Soy una de las personas que ayudo al educador en la compra de alimentos en el supermercado más cercano. También acudo a por pescado y pan, al barrio del Antiguo.”



# ASPACEKO EUSKARA PLANA

## EUSKARA PLANAREN BISIOA, ERRONKAK ETA HELBURUAK

**Euskara-plana, zertarako?** Aspacen euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko.

**HELBURU NAGUSIA**

**Aspacek erabiltzaileen eta familien hizkuntza-aukera bermatzeko urrats esanguratsuak eman ditu eta langileek euren lan-jarduna euskaraz egiteko baliabideak / aukerak eskura dituzte.**

**Eta helburu hau lortzeko datozen urteetarako erronkak:**

1. Erakundearen irudiarekin lotutako elementuetan euskarari eman beharreko lekua erabakitzea
2. Erabiltzaile eta familien hizkuntza-aukera bermatzeko neurriak hartzea, zentro bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta
3. Barneko idatzizko eta ahozko komunikazioetan euskara gehiago erabiltzea
4. Euskaraz lan egiteko tresnak eta baliabideak eskura izatea
5. Euskara Planaren garapenerako beharrezko egitura eta baliabideak ezartzea

**Hau guztia lortzeko beharrezko egiturak:**

Euskara Batzordea
Erreferenteak
Euskara Koordinatzailea
Lantaldeak (Hizkuntza-irizpideak, Motibazioa eta sentsibilizazioa…)

**Eta ezinbesteko zeharkako balioak:**

**Parte-hartzea**
Euskara Plana gauzatuko bada, langile guztiekin batera izango da, euskara ulertzen dutenak eta ez dutenak; ardura-postuetako langileak eta besteak; zentro batekoak eta bestekoak…

**Komunikazioa eta gardentasuna**
Komunikazioa beharrezkoa da. Parte-hartzaileen ezagutza eta parte hartzeko aukera handitzeko, garrantzitsua da informazioa eskura izatea.

**Elkar-ulertzea**
ASPACEko langileak hainbat zentrotan sakabanatuta daude, eta egoitza bakoitzak bere ezaugarriak ditu; hala ere, garrantzitsua izango da, bakoitzaren hizkuntza-biografia oinarri hartuta, elkar ulertzea.

**Progesibotasuna**
Zentro/egoitza bakoitzeko langileen eta lan egiteko moduen ezaugarriez gain, erabiltzaile eta familien hizkuntza-beharrak ere ezberdinak dira. Hortaz, pixkanaka hastea eta ondoren besteetara zabaltzea komeniko litzateke.

Aspace Gipuzkoa

elhuyar

Elkarteko euskara planak hurrats berriak eman ditu. Langileen artean informazio- eta datu-bilketa burutu da galdetegi, ezagutza-datuen bilketa eta elkarrizketak egin ostean, elkartearen indarguneak eta hobetzekoak zeintzuk diren identifikatuz.

Dagoeneko familiei banatu zaie planarekin lortu nahi diren erronkak eta helburuak.

## "AVANZANDO HACIA LA GESTIÓN DE PROYECTOS DE VIDA"

Aspace Gipuzkoa se adhiere al **Nuevo Modelo de Calidad Plena de Plena Inclusión**. El nuevo modelo continúa manteniendo la orientación de la gestión hacia modelos de calidad de vida y la apuesta por una gestión avanzada y todo ello desde una perspectiva ética. Es un modelo que permite medir la calidad de una organización que apoya a las personas con discapacidad intelectual y del desarrollo y sus familias.

**LAS CLAVES DEL MODELO SON:**

1. Poner a la persona y a su familia en el centro
2. Transformar las organizaciones
3. Contar con los entornos
4. Trabajar de forma ética
5. Ser eficientes y gestionar bien sus recursos
6. Evaluar, innovar y mejorar de forma continua




El 21 de junio se ha constituido un Equipo de Autoevaluación formado por familias, personas usuarias, profesionales y voluntarios, un total de 15 personas, quienes en el plazo de 6 meses realizarán una autoevaluación de la organización desde una visión conjunta, identificando puntos fuertes y oportunidades de mejora, y elaborarán un Plan.

Aspace Gipuzkoa

## Aspace Gipuzkoak GaituzSport saria jaso du



***Ekitaldia Donostiako Kursaal Jauregian burutu zen, bere 7. edizioan, "La Noche Inclusiva – Gau Inklusiboa" izenburupean.***

ASPACE GIPUZKOA ha recibido el **"Premio GaituzSport Especial a la Trayectoria",** por su 50 aniversario y la gran labor realizada para impulsar el deporte adaptado dentro de la asociación con la creación del Club Dordoka, del que han salido grandes deportistas como Richard Oribe y Sara Carracelas, o la actual campeona estatal de Boccia, Amagoia Arrieta, entre otros.

Al acto acudieron varios representantes de la asociación quienes recogieron el premio y agradecieron a la Federación su gesto y el haber elegido a Aspace Gipuzkoa para este galardón tan especial.

**Bideoa ikusi**
**Ver vídeo**

## Zorionak Amagoia!!!



Amagoia Arrieta, Dordoka taldeko kirolariak, Valentzian jokatu den Espainiako boccia txapelketa irabazi du.

**Zorionak Aspace Gipuzkoa osoaren izenean!**

## Aspace Gipuzkoak Donostiako 2023ko Aste Nagusiari hasiera eramango dio.

**Aspace Gipuzkoa** y la **Sociedad Fotográfica** serán los invitados para el arranque de la Semana Grande Donostiarra. Una representación de nuestra asociación estará en la terraza del consistorio en el momento del cañonazo, interpretando **"Artillero dale fuego"**.

¡Os animamos a que nos acompañéis en Alderdi Eder, el 12 de agosto, a las 19:00h!



# RELEVO EN EL ÓRGANO DE REPRESENTACIÓN DE LAS PERSONAS USUARIAS

Recientemente se han llevado a cabo elecciones para representantes de las personas usuarias adultas en los centros de Intxaurrondo (Donostia) y Urdanibia (Irún).

El proceso electoral se ha desarrollado con ilusión y con un alto grado de participación, y el resultado ha supuesto un cambio en las personas representantes. Así, Aitor Aranzabal coge el relevo de Luismi Larralde en Intxaurrondo, y Ana Portela, releva a Oscar Silva en Urdanibia.



**AITOR ARANZABAL**
"Ondo sentitzen naiz, pozik kargu berriarekin. Beharrezkoa den mailan egotea espero dut. CODEAren (Erabiltzaile Helduen Ordezkaritza Organoa) bileretan parte hartzeko gogoa dut, horrela lankideen bizi-kalitatea hobetu ahal izateko."



**LUISMI LARRALDE**
"El proceso electoral se me ha hecho duro. Me ha llevado un tiempo aceptar el cambio. Durante estos siete años he estado muy a gusto como Delegado. Ahora me toca apoyar a mi compañero Aitor, que es nuevo en esto y haré todo lo posible para que se sienta bien."



**ANA PORTELA**
"Me he presentado al cargo de delegada para poder aprender y hablar con los delegados de otros centros, sobre temas que nos preocupan como las asambleas, el envejecimiento, el duelo...

Me veo bien en el nuevo cargo, tengo actitud y ganas y además, cuento con el apoyo de mi tutora."



**OSCAR SILVA**
"He sido delegado de Urdanibia durante dos mandatos.. En esta ocasión, pensé que ya era hora de dejar paso a otras personas. Hecho de menos a mis compañeros delegados/as, pero sigo siendo un apoyo hacia la nueva figura ya que controlo bien todo lo relacionado con la función y siempre que me pide ayuda estoy dispuesto a ofrecerla."

## Mejoras en el Servicio de Atención Temprana

Hace 7 años, Aspace Gipuzkoa inició un proceso de transformación del Servicio de Atención de Temprana, pasando de un modelo de intervención tradicional a un modelo de intervención centrado en la familia y en entornos naturales.

Recientemente la Diputación Foral de Gipuzkoa, valorando la atención personalizada que se ofrece, ha decidido orientar al servicio de atención temprana de la Asociación a los bebes prematuros que nazcan antes de la semana 28 o pesen menos de 1.100 gramos al nacer. Será el propio Hospital quien antes del alta explique el servicio a los padres/madres.

Por otra parte, desde el mes de junio, el servicio de atención temprana en Gipuzkoa es un servicio público, universal y gratuito para las familias.



# ABUZTUKO ZERBITZU BEREZIAREN IREKIERA
# APERTURA DEL SERVICIO ESPECIAL DE AGOSTO

| INTXAURRONDO I (Donostia) | INTXAURRONDO II (Donostia) | OXIRONDO (Bergara) |
|---|---|---|
| < 20 urte/ años | > 20 urte/ años | |
| **1 - 31 abuztua / agosto** (lanegunak / laborables) | **1 - 31 abuztua / agosto** (lanegunak / laborables) | **1 - 11 abuztua / agosto** (lanegunak / laborables) |
| **Ordutegia / Horario:** 9:00 a 17:00 h | **Ordutegia / Horario:** 9:00 a 17:00 h | **Ordutegia / Horario:** 9:00 a 17:00 h |

## OPORRETAKO IRTEERAK
## SALIDAS VACACIONALES

**(33 plaza 18 urtetik gorakoentzat / 33 plazas para mayores de 18 años)**

### PAMPLONA
**Residencia Campus Erresidentzia**

**Turno 1. Txanda:**
31 julio / uztaila – 6 abuztua / agosto

**Turno 2. Txanda:**
7-13 abuztua / agosto

### OVIEDO
**Residencia MiCampus Erresidentzia**

**Turno 1. Txanda:**
1-7 abuztua / agosto

## Bainu egokitua Gipuzkoako hondartzetan



Bainu egokituko zerbitzua mugikortasun arazoak dituzten pertsona guztien eskura dago, aulki anfibio baten bitartez. Bainuak 25-30 minutu irauten du gehienez, eta sorosle-taldearen laguntza du.

**Eskatu zure hitzordua:**

- Kontxako hondartza - 677 98 33 83
- Hondarribiko hondartza - 647 61 61 58
- Zarauzko hondartza - 617 45 23 41
- Getariako hondartza - 617 45 21 53
- Debako hondartza - 672 02 05 06
- Mutrikuko hondartza - 671 62 00 86

# BAT EGIN ASPACE GIPUZKOA 2023 EGUNAREKIN!

## URRIAREN 7AN
## DENOK ALDERDI EDERRERA

ELKARREKIN, Gai + GARA

# Aspace EGUNA 2023

## 7 DE OCTUBRE / URRIAK 7 **DONOSTIA**




**11:30 MARTXA INKLUSIBOA**
**MARCHA INCLUSIVA**
(Alderdi Eder / Ondarreta)

**14:00 BAZKARI ASOZIATIBOA**
**COMIDA ASOCIATIVA**
(Goienetxe)

**ONDOREN / A CONTINUACIÓN**

Dantzaldia, zozketak, karaokea...
Baile, sorteos, karaoke...

**DJ FREDDY VS HUGO**

Gurekin egongo dira
**OSCAR TEROL** eta **MUSIKENE**
musika eskolakoak giroa alaitzen

Nos acompañarán la escuela
**MUSIKENE** y **OSCAR TEROL**

Txikiendako **PUZGARRI**
eta **AKTIBITATEAK**

**HINCHABLES** y **ACTIVIDADES**
para txikis

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

www.aspacegi.org aspace@aspacegi.org 943 216 055 @aspacegipuzkoa Aspace Gipuzkoa @aspacegipuzkoa